

iruner

190. zenbakia. 2011ko urtarrila



Bidasoako azken gabarra



Tabakoa
tabernetatik kanpo:
Erretzaileek
etsipenez hartu
dute.



Miguel Solak
Real Union 2.
mailara eramateko
aukera berri bat
dauka.



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



PROGRAMAZIOA

2010-2011

Txingudiri buruzko programak

| | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|---|--------------------------------------|---|----------------------------|-------------------------------|--|
| 8:30-9:00 | Euskadiko berrien laburpena | Euskadiko berriak (Errepikap.) | | | |
| 9:00-9:30 | Txingudiko berrien laburpena | Txingudiko berriak (Errepikap.) | | | |
| 12:30-13:30 | Foro Abierto (Errp.) | Tiempo Real (Errp.) | Gipuzkoako gaiak (Errp.) | Foro Abierto (Errp.) | Micrófono Abierto (Errp.) |
| 13:30-14:00 | Txingudiko berrien laburpena (Errp.) | Txingudiko berriak (Errepikap.) | | | |
| 17:30-18:30 | Foro Abierto (Errp.) | La Banatua (Real Union) (Errp.) 17:30-19:00 | Tiempo Real (Errp.) | Hablando Claro (Errp.) | Micrófono Abierto (Errp.) |
| 20:30-21:00 | Euskadiko berriak | | | | |
| 21:00-21:30 | Txingudiko berriak | | | | Asteko berrien laburpena |
| 21:30 | La Banatua (Real Union) 21:30-23:00 | Euskadiko magazina 21:30-22:30 | | | Zinea |
| | | Tiempo Real 22:30-23:30 | Hablando Claro 22:30-23:30 | Micrófono Abierto 22:30-23:30 | |
| Larunbat eta igandeetan | | | | | Larunbatetan |
| 12:00-14:00 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena | | 20:30-22:30 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena | | | 18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.) |



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan*

- *Hori bizitza!* Pepita Setien
- 2011ko udal aurrekontua.
- Kabigorriko Olerki Topaketak
- Tabakoaren lege berriak eragin dituen aldaketak.

12.- *Kirolak.*

Miguel Sola, Real Unionekeo entrenatzaile berria

15.- *Gai nagusia.* Bidasoako azken gabarra

20.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

24.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa* *Jeloskor nago!* (II atala)

26.- *Eleak iruten.* Xabier Lete gogoan

27.- *Lerroz lerro.* Koldo Izagirrereren *Autopsiarako frogak*

28.- *Kultur Agenda*

30.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

“Lan eginez asko gozatu dut”



Pepita, Barojaren liburuen lehen edizioen bildumaren aurrean.

Emakume kultua da Pepita: literatura eta pintura etxeko bazter guztietan; bertsolaritza, bihotzean. Nekez asetzen denez, ezkondu ostean ezin etxeko lanetara mugatu. Urtetan aritu zen Jaitzubiko golfa sortzeko aurrera eraman zen operazio inmobiliarioan lanean. “Askok gozatu dut lan eginez” dio, urte haiek gogoratzean.

Mikelete lanak aita Patrizio Endarlatsara eraman zuen. Bertan, Bidasoaren ertzean, sortu zen Pepita Setien, 1934an. “Aitak denetik egiten

zuen: zergak kobratzen zituen, auzoko maisu ere bazen... eta aisialdian, bertsolaria”, gogoan du. Pepitak bi urte besterik ez zituen igaro

Endarlatsan. “Frankistak Nafarroa aldetik sartu ziren Irun hartzeko. Lortu zutenean mikeleteen kidegoa deuseztatu zen”. Abertzaleak izaki eta

lanik ezean, familiak erbestera-
rako bidea hartu zuen,
Landetako Mimizanen berriro
suaitzera derrigortuta.

Bederatzi urte zituela, Irunera
itzuli eta Larretxipi kaleko
Kantoia etxea izan zuen bizi-
toki berria.

Irunen gurdiz sartu zen egun
hartako oroitzapenak xeheta-
sunez gomutatzen ditu: “Irun
oso handia iruditu zitzaidan.

Argiak, pertsonak, ahotsek...
ezberdina-
k ziruditen.
Kalean espai-
nolez hitz egi-
ten entzuten
nuen, nik uler-
tzen ez nuen
hizkuntzan.
Eliza, udale-
txea, etxeak... dena gehiegiz-
ko tamainakoa begitantzen
zitzaidan eta ezin nituen men-
deratu. Baina batez ere harritu
ninduen izan zen edonora
begiratuta ere mendiak ikus-
ten nituela”. Biharamunean,
izebak etxeko leihotik eraikin
erraldoia ha-tzez erakutsi
zion. *Hori izango da zure
eskola berria*. Eta halaxe El
Pilar ikastetxera joaten hasi
zen, *gratuitas* edo ordaindu
behar ez zutenen taldean:
garaiko maila soziala markat-
zen zuen adierazleetako bat.

Bitzita profesionala

Eskolako ibilbidea amaituta,
Flores-en ikastegi ospetsuan
bulegoko ikasketak burutu
zitu. “Gero, ezkondu nin-

tzen. Garai hartan emakume-
ak, behin ezkondu, etxean
geratu ohi ziren. Nik, ordea,
argi neukan ez nuela hori
nahi.” Bere bitzita profesiona-
la golfaren eraikuntzarekin
lotuta dago. Operazioaren sus-
pertzaila Jaime Rodriguez
Salisekin urte askotan lan egin
zuen. Kontua zen golf zelaia
Lasartetik kentzera derrigor-
tua zegoela kluba. Orduan,
Jaitzubian berria moldatu ahal

izateko, terre-
noak oparitu
zitzazkion
sozietateari,
eta inguruko
orubeak etxe-
ak egiteko
salduz berres-
kuratuko zen

dirua. “Nik orotarik egin
nuen: lursailak erosi, saldu,
izapideak prestatu, eta abar
luzea. Ardura potoloak neuz-
kan; baina ni bigarren maila
batean nengoen. Oso gustura
ibili nintzen. Lan eginez asko
gozatu dut”.

Jakin-min asegaitzeko emaku-
mea da Pepita. Arte zalea, ira-
kurle amorratua eta idazle afi-
zionatua. “Tira, azken hori
gutxi egiten dut”, zehaztu du,
apal. Bertsolaritza bihotzean
daraman grina dela aisa igar-
tzen zaio. Ezin eutsizko bulka-
dak eraman du biografia txiki
hau Txirrita eta Pello Errota
handien arteko bertsoak botata
amaitzera.



Pepita, German eta Javier Setien
anaia-arrebak.

“Argi neukan ez
nuela etxean
geratu nahi”


Bertsoa

Sortzez ta bataioz
ni naiz irundarra
aita Patrizio nuen
ernaniarra.
Beronika ama zana
eta alkizarra
“Kantoiari” hartu nuen
Lehenbiziko indarra.
Orduan ederra,
sasoi su ta garra
makiña bat parra
ai nere etxe zaharra!
urteak joan ziran ta
orain negarra.

Josefa Maria Setien

2011ko udal aurrekontua 69.283.494 eurokoa da

Gastuen banaketa



Irunek onartu du jada 2011ko aurrekontua, iaiz baino hilabete lehenago. Alderdi Sozialistako 12 zinegotzien aldeko botoak besterik ez zuen lortu 69,3 milioi euroko aurrekontu proposamenak, 2010ean baino 400.000 euro gutxiagokoak. Nahiz eta PSE-EEK gehien-goia ez izan, 12 botoak aski izan ziren: alde batetik, karguari uko egin zion ezker abertzaleko zinegotziaren ordezkoa izendatzea galarazi egin zuen Hauteskunde Batzordeak; bestetik, berriki zinegotzi izateari utzi dion Aralarreko Aritz Lekuonaren kargua hartuko duenaren izendatze ofiziala ez da oraindik egin.

Aurrekontuaren nondik norakoak

Ogasun zinegotziak; hots, Goizane Alvarezek, Udaleko kontuen aurkezpena egiten ari zelarik, egoera ekonomikoa aintzat hartua zuela azpimarratu zuen. Izan ere, haren esanetan, aurrekontuak “egonkortasun ekonomikoa bermatzea du helburu nagusi, eta, gainera, hori lortu nahi dugu hiritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu orokorrak, zein bizitza-kalitatean eragin zuzena dutenak, mantenduz, lortu ere”. Bestalde, elkarteei ematen zaizkien diru laguntzetan murrizketa berririk ez dela izango ere jakinarazi zuen.



Oposizioaren ezezkoa

Ezker Batua-Berdeak-Aralar taldeak eta EAJ-PNVk ezezko borobila eman zioten aurrekontuari, osoko zuzenketa aurkeztuz. Manuel Millan ezkertiarren bozeramaileak ezadostaduna agertu zuen, “enpleguaren sustapenerako eta gizarte ongizaterako gasua murriztu delako, Ficobari 1,4 milioi luzatuko zaizkiolako eta gauzatzen ez diren plan piloak idazten direlako, besteak beste”. Alderdi jeltzaleko Maria Eugenia Iparragirrek gasuak ez direla murriztu kritikatu zuen, baita ere udal gobernuak zenbait proiektu iragarri bai, baina ez dituela burutzen.

Ezker abertzaleko bi zinegotzik EB-B-Aralarren eta EAJ-PNVren osoko zuzenketen alde bozkatu zuten. PP, berriz, batean zein bestean abstenitu zen. Gauza bera egin zuen EB-B-Aralarrek EAJrena bozkatzean, eta alderantziz.

Ezbaia

Miguel Angel Paez sozialisten bozeramaileak, krisi ekonomikoa gora-behera, gobernuak 2007an aurreikusitakoa bete duela azpimarratu zuen, eta gogor kritikatu zituen osoko zuzenketa proposatu zituzten alderdiak “inongo ekarpenik egiten ez dutelako”. PPko Juana de Bengoechea kezu agertu zen gobernuak “oposizioari errietan eginez ernegazioa eragiten duelako; baina gobernuak gutxiengoa badu agintaldi honetan, eta gauzak aurrera ateratzea izan du”. Paezen iritzia bereziki gordina izan zen EAJ-PNVren jardunaz, “noraezekoa eta frustrantea” dela adierazi baitzuen. Jeltzaleen burua harrিতuta geratu zen “kritikek oposizioan dagoen alderdi batenak” ziruditelako.

Inbertsioak

Udalak 9 milioi inbertsiotan gastatuko ditu aurten. Zatiirik handiena, %65, San Juan plazako obrarekin aurrera jarraitzeko baliatuko da.

Gainontzekoaren kopuru handiena honako lanak egiteko izango da:

- Lanak zenbait ikastetxetan.
- Ama Xantalen ermitako teilatua.
- Santiagoko aduana zaharra berritzeko lanak, Circoulduce izeneko bide berde proiektuaren barruan.
- Mahai-teniseko teknifikazio zentroa.
- Larreaundiko futbol zelaiaren inguruetakoa lanak.
- Antzinako poxpolo fabrikako kebi-dearen konponketa.
- Osinbiribileko parkea egiteko obrak.
- Palmera-Monteroko hiritar-zentroa.
- Musika kontserbatorioko urmaela iragazgaiztea.
- Alarde kalea.
- Istillaga kalea.
- Inbertsioak informatika departamentuan, administrazioa modernizatzekeo.

Olerki topaketak Kabigorriin

Otsailaren 2tik 6ra bitartean Kabigorriin burutuko dira

Kabigorriik, aurreko urteetako esperientzia bikainari helduz, 2011n ere Olerki Topaketak antolatuko ditu. Otsail hotzaren lehenbiziko egunetan kultur giroa berotuko duen egitarau erakargarria prestatu dute Ateneoko zaletuek.

Euskal nahiz erdal olerkariak hainbat formatutako lanak ekarriko dituzte topaketetara. Entzun, ikusi eta, batik bat, sentitzeko parada.

Otsailak 2: Jesus Rodriguezek “Entre el cielo y la tierra” izeneko saioa eskainiko du.


Otsailak 3: *Jorge Oteiza, egan.* Oteizaren olerkien inguruko bideo-muntaketa errezi-tala Javi Sistiagarekin eta Jesus Rodriguezekin, eta “Ttipia ta Txomin Txalapartaren” laguntzaz.

Otsailak 4: Itxaro Bordak *OUT* lana aurkeztuko du. Jeremi Garatek (gitarra) eta eta Maddi Oihenartek (abestiak) lagunduta.

Otsailak 5: *HIRUNen Argisoinuketa.* Argi eta soinuak kontzertua. Ikuskizun poli-poetikoa-elkarreragilea-multimedia, kontzertu klasiko baten egiturakoa. Juan Crego (bideoa), Patxi Serrano (bideoa eta errezi-tatzailea) eta Jose Blanco (gitarra eta aho-tsa).

Otsailak 6: *Nuevas presencias nuevas tendencias.* Gaur egungo poesiaren ahots gazteen inguruko ibilaldia. Javi Sistiaga eta Esther Barandiaran (pianoa).

Hilabete guztian zehar: “Hitzak begientzako” erakusketa, Juan Cregoren eta Patxi Serranoren ikus-olerkiak.





Pipo's tabernako kanpo aldean erretzaile talde txo bat. Eskuinean, erretzaile ez diren bi lagun Sargia tabernan.

Erretzaileek etsipenez hartu dute lege berria

Normaltasuna nagusi, taberna eta besteetan erretzea debekatzen duen legearen ezarpenaren ondorengo egunetan

Hasieran garraio publikoetan erretzea debekatu zen.

Ospitaleetan ere keari muga jarri zitzaion, eta lantokietan duela bost urte ez da zigarro bat pizten. Taberna eta jate-txeetan galaraztearekin batera, erretzaileei kalea edo etxea baizik ez zaie geratzen.

Legea indarrean jarri eta ondorengo egunetan normaltasuna nagusi dela nabarmendu du MUGAN Irungo Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteko kudeatzaile Tomas Maeztuk. “Bai, debekuaren aurrean bezeroek errespetuz jokatu dute eta kalean erretzeko ohiturari lotu zaizkio arazorik sortu gabe. Baten batek barruan zigarroa piztu badu, konturatu ez delako izan da”. Debekuak ostalariei ekarriko dizkien -ekartzen badizkie- ondorio ekonomikoak dagokienez, Muganeko kudeatzaileak oraindik neurtzeko goiz dela adierazi du.

Bada, Irunerok zenbait ostalaritza establezimendutan osteratxoak egin du legearen eraginak



zein diren jakin aldera.

Santiago

Ana, Salis hiribideko Juncal tabernako jabea, ez da erretzailea; beraz, ke-laino batean lan egin behar ez izateak biziki eskertu du. “Tira, baldin eta horrek negozioan eragin txarrik ekartzen ez badu”. Diru sarrerak pixka bat murriztagoak izango direlakoan dago “legea neguan indarrean jarri denez jendeari gehiago kostako zaiolako kalera irteea”. Oro har, pozik dago, bezeroek errespetatu baitute araua. “Tabernara betikoek etortzen jarraitzen dute eta etorkizunean ere hala egingo dute, jatekoa eta edotekoa hartzeaz gain hau harremanetarako lekua dute-eta”. Bidegabekeria iruditzen zaiona da tabernariak araua betetzearen erantzule izan beharra.

Egunero bitan Juncalen kafea hartzeko ohitura duen bezero batek kalean erre behar duenez, zigarroa kopurua murriztu duela onartu zuen. “Eta eskertu dut! Orain biriak irekiagoak ditudala nabaritzen dut!”

San Juanen

Sargia tabernan diotenez, lege berriaren aurrean bezeroei alternatiba bat emateko, terraza eta



olanak oso baliagarriak dira. “Ez dugu inor barruan erretzeagatik ohartarazi, eta lan esker-ga ez da murriztu. Hori bai, erretzaileek haserre bizia agertzen dute debekuarengatik”.

Hamaiketako hartzen ari diren bi bezero topatu ditugu barruan, biak ere ez-erretzaileak. “Eskertu dugu arau berria”. “Pentsa, -dio batek- lehen ke asko zegoenean ni nintzen kanpora joan behar nuena!”. Tabernetan tabakoa saltzeko makinak egoteari inkoherentzia deritzote, eta erantzunik gabeko galdera bat ere bota dute: “Zeinek itzuliko die dirua aurreko legearen arabera lokala egokitzeko inbertitu zuten ostalariei?”

Halabeharrez, kanpoan kontsumitzen ari den ohiko bezeroa dago. Ia itaundu gabe zera bota du parrastan, amorru ikutu batez: “Argi dago gutxiago kontsumituko dudala. Ez naiz etorriko



Mendibilgo taberna-kafetegien ikuspegia, goizez.

tabernara partiduak ikustera. Drogamenpekoei bezala niri ere laguntza ematen didatenean, orduan, agian, erretzeari utziko diot”.

Larreaundin

Pipo's tabernako jabeak -erretzailea- “duintasunez” daramala dio, umorez. ”Uste baino errazago onartu du jendeak. Bakanen bat ohartarazi behar izan dut, baina horien erreakzioa ez da txarra izan. Jendeak onartzen ez badu, etxera joango da partidua ikustera”. Tabernariarentzat, tabakorik gabeko espazioan lan egiteaz gain, abantailak dira orain zigarro-mutxikin gutxiago daudela lurtean eta pintxoentzat giroa higienikoagoa dela.

Ironiaz mintzatu da tabernako kanpo aldean dagoen erretzaile bat: “Orain zigarroak erdi erreta daudela itzaltzen ditugu, lehenengo solairuko bizilagunak keगतik kexatuko dira eta, gainera, kanpoan erretzeagatik sarriago gaixotuko garelako Gizarte Segurantzak gehiago gastatu beharko du! Hau diktadura da!”

Mendibilen

Virginia kafetegiko Carlos Garranchok 2006ko legea indarrean jarri zenean Mendibilgo kafete-

gien eremuan debekua ezarri zela gogora ekarri du. Alabaina, “erretzaileak ziren bezeroen presioek hartaratuta, legearen zirrikitu bat baliatu behar izan genuen tabakoa baimentzeko”. “Ni ez naiz erretzailea; beraz, niregatik hobe kerik ez bada. Baina nire kezkarik behinena da arauak ondorio negatiboak ekarriko ote dizkigun. Oso kontuan hartzekoa da kafetegia ez dagoela kaletik pauso batera”. Zalantzak gorabehera, adierazle baikor baten berri eman digu Carlosek: “Bada egunero etortzen jarraitzen duen erretzaile amorratu talde bat. Tira, bada, seinale ona”. Orain artekoan debekuak gorabeherarik sortu ez diola onartzen du, ez lan esker-gari ez bezeroen aldetik legea betetzeari dago-kionez.

Bazkaltzen ari diren bi emakumerengana hurbildu gara azkenik. “Bidegabekeria hutsa da”-irizten diote-, baina zer egingo dugu? Bada, kanpoan erre. Ez pentsa, ordea, gutxiago erreko dugunik”. Haserreak eragindako proposamena botaz borobildu dute kexua: “Helburua erretze-ari uztea bada, ken ditzatela tabakoa saltzeko makinak, itxi ditzatela estankoak eta tabakoaren ekoizpena ere debeka dezatela!!!”

Miguel Sola, Real Unionen entrenatzaile berria

“Real Unionek zaletuak irabazi dituela nabaritzen da zelaian”

2002ko ekaineko partidua hura gogoan du Miguel Solak, Gramanetekoaren aurkako norgehiagokan igoera historikoa haztatu zuenekoak. Alvaro Cerverari lekukoa hartu berritan, nafarrak irmo heldu dio Real Union 2. mailara (ber)igotzeko lanari.

- Irunera bueltan, nola ikusten duzu hiria?

Irun hiria pixka bat aldatu dela ikusi dut. Oso gustura eta eroso sentitzen naiz hemen. Aurreko etapan egin nituen adiskideak mantendu ditut urte hauetan.

- Kirolaren alorrean, nolakoa da giroa zaletuen artean? Eta jokalariean?



Giroak hobera egin du. Real Union 2. mailan egon delako zaletuak irabazi dituela nabaritu dut. Hori agerikoa da partiduetako giroan, jende gehiago joaten baita, eta jokalariei ere gehiago animatzen zaie.

Jokalarien arteko giroa bikaina dela esango nuke.

- Sistema berria abian jarri duzu: 4-4-2. Ongi egokitu al zaizkio jokalariai aldaketari?

Sistema hori partidu bakarrean erabili dugu orain arte. Ez da sistema finkoa; alegia, partiduaren arabera sistema bat edo beste bat baliatuko dugu. Sistema baino garrantzizkoagoa da jokalariai eroso sentitzea zelaian.

- Zelaiko eserlekuz aldatzea erabaki duzu: zer dela eta?

Bada, horretan marrazainetik hurbilago nagoe-lako; beraz, ez dut harekin zertan keinuka komunikatu behar, eta ondorioz elkar ulertzea hobe da; adibidez, gaizki-ulertu batengatik txartela ateratzea saihesta daiteke. Marrazainaren ondoko eserlekuan gauzak beti hobeto joan zaizkidala uste dut.

- Zein da zure helburua denboraldi honetarako?

Oso argi daukat: lehenengo play off-ean sartu ahalik eta hoberen sailkaturik, eta, ondoren, igoera lortu.



- Esaguzu Real Unionen alderdi on bat, eta hobetzeko daukan beste bat.

Azken urte hauetan Klubak profesionaltasunaren aldera salto kualitatiboa eman duela. Hobetzeko kontuen artean, entrenatzeko belar naturaleko zelaia egokiagoa izango litzatekeela uste dut.

Gabiria kalea, 15 - 179
Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxa
943 63 16 02

- SONORIZAZIOA
- ARGIZTAPENA
- GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ERREALIZAZIORAKO
PLATOAK

- BIDEO-ZINEMA-
PUBLIZITATEA
- BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- PANTAILAK

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen
karrika)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxiipi)
EKT (Larretxiipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Uranzu,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKAR-
TEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea
k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).



Gregorio Olasagasti, 1947an egin
zuen gabarraren ondoan.

Bidasoako azken gabarra

Amuteko zubiaren alboan, erreka-errekaren ildoak bere magalean hartuta, Bidasoako azken gabarra datza. Zilbor-heste ikustezinaz, aldameneko Gure-Atsegiña etxeko Gregorio Olasagastiri amarraturik dago. Gabarra eta gabarraria, batak bestea gabe ezin iraun. Bere eskuz sortu zuen Gregoriok bizibide izan zuen tresna. Biek erretiroa hartu zuten aspalditxo.

Gregorio Olasagasti (1922) Amuteko Gurbinenea baserrian jaio zen. Zazpi anaia-arrebetako gazteena, da bizirik dirauen bakarra. Lau anaiak gazte-gaztetatik gabarrari, nekazari eta arran-tzale lanari emanak, haien kontura. “Etxeko baratzean berdura asko egiten genuen. Gero arrebek Irungo plazara saltzera eramaten zuten. Atxikoria auzoan zegoen atxikoria-fabri-

kari saltzen genion”, gogoan du Gregoriok. Amuten hamabi gabarra ere ibiltzen ziren garai haietan. “Ganadua eramaten genuen. Kontrabandoan ere aritzen ginen: Hendaiatik batez ere kafea, errodamenduak eta bestelako produktuak ekartzen genituen”. Gerra osteko garaietan hegoaldean urriak ziren gaiak, hain zuzen. (18. orrialdean jarraitzen du)



Tentacion: karparik dotoreenak

Alokairua eta salmenta

- Haizetik babesteko
- Tenperaturetatik babesteko
- Malguak
- Moldakorrak
- Kalean erretzera derrigortuta dauden erretzaileentzat konponbide perfektua.

607 33 35 36





Gabarrak, Bidasoako garraibide

Gaur egun Bidasoan erabat desagertuak daude gabarrak, baita gabarrari lanbidea ere. Alabaina, hainbat mendetan zehar, ibaiak komunikabide nagusiak izan ziren heinean, unti hauen erabilera oso zabaldua zegoen. Garraibide honen garrantzia ilustratzeko, hona hemen bi datu esanguratsu: XVIII. mendearen erdi aldera arte ez zutela Bidasoako lehendabidizko zubia eraiki –Behobikoa–, eta XII. mendean idatzitako Kalixtoren Kodean jada gabarriak aipatzen direla.

Pertsonak, merkantziak eta ganadua garraiatzeko untiak ziren. Ur bareetan erabiltzen zirenez, ezaugarri berezikoak ziren: hondo laua, garaiera txikia eta



Gabarra Junkal elizaren atze aldean. Iturria: Irungo Udal artxiboa.


Bidasoan *borta* deitutako pertikaz baliatutako ontzia apuillian eginez mugitzen zen.

Gerra Zibilean hiru anaiak gudari joan ziren eta Gregoriori aitarekin geratzea egokitu zitzaion. Zorionez, onik bueltatu ziren hirurak Amutera. Pasadizo ugari bizi izan ditu, gogoangarriak batzuk, gogaikarriak beste batzuk. Baina guztien artean bat du bereziki ahaztezina. “1946an gertatu zen. Hendaiatik Aberri Eguneko propaganda gabarrean ekarri nuen. Hura banatzen ari zen gizon bat Mendelun tiroz hil zuen poliziak. Nik propaganda ekartzeagatik urtebete pasa nuen Ondarretako kartzelan. Handik aurrera kontrabandoa egiteari utzi nion”. Manzanas poliziaburuarengana eraman zuten. Ongi baino hobeto iltzatua du burumuinean haren zitalkeria: *“Ez zait axola hiltzen banauzu ere!”*, bota nion. Eta hark erantzun zidan: *Ez zara hilko, lehortuko zara!. Handik aurrera kontrabandoa egiteari utzi nion”*.

Urtetan Bidasoaren bokalean hondarra -argia edo beltza- palaz ateratzen jardun izan zuen. Gero gabarraz Amuteraino garraiatzen zuten, eta etxeak egiteko saltzen zieten kontratistei. “Lan gogorra zen. Hotz handia pasatzen genuen. Pentsa itsasbehera zegoenean lan egin behar zela, horregatik askotan arratsez ere joan



Behean, Hondarribiko arraunlariak 1948an, Kontxako bandera irabazi zutenean. Gregorio banderari ezker aldetik eusten diona da. Goian, gabarriak Mendeluko zubian. Iturria: Irungo Udal artxiboa.



Bidasoako gabarra bat. Luzera: 9,66 m. Erruna: 2,02 m. Jabea: Jaime Rodriguez Salis. Planoa: X. Agote. Iturria: *Las embarcaciones fluviales en Gipuzkoa*. Antxon Aguirre Sorondo. Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco, 4. zenbakia, 2003.

behar izaten genuen. Orain ez da lanik egiten, orduko erdia ere!”^s

Aisialdian, arrauna

Olasagasti anaiek gabarra zuten lanabes; trainerua eta batela, berriz, aisialdiko jardunik behinena. Borta utzita arraunari heltzen zioten Ama Guadalupekoaren tostetan. “Hori bai gustuko genuela! Kontxako bandera ere irabazi genuen 1948an -dio harro-. Bateletan ere irabazi genituen sariak”.

Bidasoako azken gabarra

Gregoriok berak eta Juan Jose Gonzalezek 1947an azken gabarra egin zuten. Ongi zaindua dago, Gregorioren lehengusu Nikolasen eskuei esker. Gaur egun marearen eraginez mugitzen da soilik, gora eta beherako erritmo amaigabea. San Ignazio egunekoa urteko txango bakanetakoa izan ohi da, Nikolasek Behobiko jaietara eramaten duenean. Garraio bideen garapenak Gregorioren lanbidea akabatu zuen, eta etorkizunean haren bizitokia ere eraitsi lezake. “Bai, errotonda berria egin nahi dute nire etxea dagoen tokian”.

Gabarretako parteen izenak

Gabarretako parte askok edozein ontzita-koen izen bera badute ere, batzuek ezau-garri bereziak dituzte. Hona Antxon Aguirre Sorondok *Las embarcaciones fluviales en Gipuzkoa** izeneko lanean aipatzen dituen horietako zenbait:

Polain-tokia: arrauna sartzeko txopako zuloa.

Txopa azpia: Atzeko ohol azpia, jatekoa eta marinelaren tresnak gordetzeko.

Kostal-ola: Ontziaren saihetseko ohola.

Muturreko zotokia: Muturra sendotzeko ohola.

Saihetsak edo armazoia: armazoia osatzen duten burgatoiak.

Ala ondoa: Urak bustitzen duen ontziaren parte.

Karela: Ontziaren goiko alde guztia sendotzeko errefortzua.

Txukalekua: Ura xukatzekeo lekua.

*Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco, 4. zenbakia, 2003.

Ametsa Gaztek 16 abesti ekarri ditu bere lehendabiziko diskora



Ametsa Gazte, udaletxean diskoa aurkeztu zuenean.

Ametsa Gaztek, duela 6 urte eratu zenez geroztik, gogoz eta ilusioz jardun du. Urte berriarekin batera ibilbide oparoa laburbiltzen duen lehen lana argitara eman du, Kutzaren laguntzaz: *O nata lux (O jaiotako argia)* diskoa.

Hamasei kantuko grabaketa urtarrilaren 4an Udaletxeko areto nagusian burututako ekitaldian aurkeztu zen. Bertan, Ametsa Gazteko abeslariak eta Jon Aizpuru zuzendariak ez ezik, Xabier Txapartegi Ametsa Kultur Elkarteko presidentea, Fernando San Martin Kultura zinegotziak eta Kutzako ordezkari Yolanda

Hilariok ere parte hartu zuten.

Diskoa NBmusika disketxeak argitaratu du. Iazko abuztuan Azkoitiko Santa Kruz komentu-elizan grabatu zen, 33 abeslariaren partaidetzaz. *A capella* abestutako kantuak eta perkusioz eta pianoz lagundutako beste batzuk ekarri dira lanera. Jon Aizpururen iritziz, “kontraste handiko diskoa da, gazteen izpiritua ondo islatzen duena”.

Grabaketa jendeari aurkezteko, Ametsa Gaztek urtarrilaren 8an kontzertua eskaini zuen Junkal elizan.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISĒTAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Langabezia tasa %1,1 murriztu da Irunen

| LANGABEZIA | 10eko urria | | 10eko azaroa | | 10eko abendua | | 10-aza. / 10-abe. | |
|------------|-------------|--------|--------------|--------|---------------|-------|-------------------|-------------|
| | Guztira | *Tasa | Guztira | *Tasa | Guztira | *Tasa | Ald. absol. | Ald. erlat. |
| Irun | 4.509 | % 14,3 | 4.553 | % 14,4 | 4.505 | %14,3 | -48 | % -1,1 |
| Gipuzkoa | 39.276 | %11 | 39.492 | % 11,1 | 39.449 | %11 | -43 | % -0,1 |
| EAE | 132.345 | %12,3 | 133.051 | % 12,3 | 135.961 | %12,6 | 2.910 | % 2,2 |

*Egailan Laneko Merkatuaren Behatokiak biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta.

2011 urtea hastearekin batera, langabeziari buruzko datuek berri ona ekarri digute, tasa pixka bat txikiagotu baita, aspaldiko partez. 2010eko azaroan 4.553 langabetu zeuden Irunen, EIN-en (INEM) datuen arabera; abenduan, berriz, 48 gutxiago. Horrek, langabezia-tasaren % 1,1 murriztea ekarri du. Hortaz, orain %14,3koa da. Halere, lanik ez duten irundarren tasak EAEkoaren eta Gipuzkoakoaren gainetik jarraitzen du: Gipuzkoan %11koa da eta EAEn, %12,3koa. Datu berriak garrantzizkotzat jo ditu Bidasoa

Bizirik-ek, Euskadiko Autonomia Erkidegoan azarotik abendura bitartean “langabezia % 2,2 handitu delako, eta Gipuzkoan % 0,1ean baino ez du behera egin. Gainera, urte arteko bilakaera kontuan hartuz gero, Bidasoa eskualdearena EAEarena baino hobea izan da, Euskadin % 1,8 handitu baita”.

Halaber, Bidasoa Bizirik-ek nabarmendu du lanik ez duen 25 urtetik beherako gazteen kopurua % 8,9 murriztu dela, eta 25etik 45era bitarteko adin-tartekoena, %0,8.

Gurean, zerbitzuetan sortu da enplegu gehien.

INNOV MUGABE sortu da, mugaz gaindiko harreman ekonomikoak suspertzeko

Abenduaren 17an INNOV MUGABE mugaz gaindiko proiektuaren partaide politikoez lehenbiziko bilera egin zuten Urruñan, eta bertan sinatu zuten sorrera-akta. Bilerako buru izan ziren Jose Antonio Santano Irungo alkatea eta Michel Hiriart Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoko presidentea.

Bidasoa Bizirik-en gidaritzapean aurrera eramaten den proiektu honek xedetzat du mugaz gaindiko harreman ekonomikoak suspertzea, enpresen lehiakortasuna baldintzatzen duten balioak hobetuta.



Irungo alkatea eta Michel Hiriart, eratze akta sinatzen ari direla.

Eguzkitzako eskola berria eraikitzeko obrak, abian

Eusko Jaurlaritzak urtarrilean abiarazi ditu Eguzkitzako herri ikastetxe berria eraikitzeko lanak. Haur eta Lehenengo Hezkuntzako eskola Larreaundiko eskolaurreko eraikin zaharra dagoen tokian egingo dute, Victoriano Juaristi eta Ama Miraritakoa kaleek bat egiten duten eremuan. Bi eta hamalau urte bitarteko 500 ikaslerentzako gelak izango ditu, eta 2012-2013 ikasturte hasierarako bukatuta egotea aurreikusi da. Aurrekontua 3,4 milio eurokoa da. Ordura arte, ikasleek Berio kaleko ikastetxekeo geletan eta aldamenean dagoen eskolaurreko eraikinean jarraitu beharko dute.



Bi langile Eguzkitzako eskola zaharraren aurrean.

8.300 lagunek bisitatu dute Ficobako Gabonetako Haur Parkea

Beste urte batez Gipuzkoako txoko guztietatik, baita Iparraldetik ere, etorritako haur eta nagusiak Ficobaraino heldu dira Gabonetako Haur Parkeaz gozatzera. Guztira 8.298 bisitarik bete dituzte Ficobako pabilioiak Eguberrietako Haur Parkea jarrita egon den zazpi egunetan. Urte hauetan ohikoa den moduan, bisitariak gehien baloratu duten ezaugarrietako bat erakustazokako instalazioen zabalatasuna izan da. Horri esker, Ficobako hiru pabilioiak betetzen zituen jolas, hezibide eta kirol jardueren eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izan dute.



Txingudiko Zerbitzuek antolatu zuten jokoa.

Prudencia Arbide kalean urbanizazio lanak egingo dituzte

Irungo Udalak Campezo Construcción enpresari esleitu dio Prudencia Arbide kaleko etxe-etara sarbideak eta espaloiak konpontzeko lanak. Miguel Angel Paez Obra ordezkariaren esanetan, “duela urte batzuk inguru honetan egin ziren lanak hobetzean datza obra berria”. Orain helburua eskailera eta arrapalen egoera hobetzea da. Eskailera nagusiko harmailak kenduko dituzte eta haien ordezkari baldosa hidraulikokoak eraikiko dituzte. Halaber, etxe inguruan espaloi berriak egingo dituzte, baita lorategietako zintarriak aldatu eta lurra zabaldu ere.

Bestalde, duela gutxi moldatu dute aipatu kaleko etxeetako atzealdean egoteko eremua, Gain Gaineko parkeko sarreraren zati bat izango dena.

Udalak parke horren bigarren fasea ez du oraingoz aurrera eramango, baina bertan eraikiko den MahaiTeniseko Teknikifikazio zentroa aurtun hastea aurreikusten da.



Turismo sektoreko 41 profesional Bidasoa Biziriken formazio programa batean

Turismo sektoreko 41 pertsonak parte hartu dute 2010ean zehar Bidasoa Bizirik-ek zerbitzuaren kalitatea hobetzeko antolatu duen formakuntza programan.

Anfitrioiak: detailearen kultura deituriko programa Basque Tour-ekin lankidetzan antolatu da, eta lau tailerrek osatu dute: horietako hiru, establezimenduetako langileei zuzenduta; bestea, zuzendari eta erdi mailako buruen-

tzakoa. Ostalaritzako langileek honako ikastaro hauetan parte hartu dute: *Nola egin irribarre telefonoz eta posta elektronikoz; Zein dira turistak eta zer bilatzen duten, eta Gomenda itzazu zure turismo-lekuko zerbitzuak eta tokiak.*

Bestetik, zuzendarientzako ikastaroa *Gatazkak detektatu, negoziatu eta modu positiboan konpondu* izenburukoa izan da.

Jeloskor nago!

Aurreko atalean azaldu genuen bezala, jeloskortasunaren emozioak badu ingurunera egokitze funtzioa. Pertsona zehatz batzuegandik sentitzen gara jelos, eta jeloskor sentitzean maite dugun pertsona galtzeko beldur sentimendua pizten denez, gure burua edo lekua kolokan dagoela iruditzen zaigu. Aurrekoan azaldu genuen bezala, helduok arrazoi batzuegatik sentitzen gara jelos, eta haurrak, berriz, beste batzuegatik. Oraingoan, haurrek beraien artean dituzten jelosiak aztertuko ditugu:

Haurren arteko jelos sentimenduak desatseginak badira ere, eta, gainera, askotan sufri-mendua sortzen badute ere, sentimendu hauek oso normalak dira, baita askotan beharrezkoak ere. Helduentzat maiz gatazka iturriak dira, eta gatazken kudeaketarekin lotura handia dutenez, mingarriak edo pisutsuak egiten zaizkigu. Faktore anitz hartu behar dira kontutan jelosia aztertzerakoan. Azter dezagun lehenik anai, arreba edo ahizpa jaioberri baten etorreran ematen den jelosia:

• **Anai, arreba edo ahizpa berri bat dator:**

Hasteko, ikus dezagun haur bati anai, arreba edo ahizpa bat izango duela adierazteko modua, eta haurrak zer senti dezakeen. Hona hemen hiru urteko Beñaten adibidea:

Gurasoak mintzo: "Etorri, Beñat, gauza oso garrantzitsu bat esan behar dizugu. Begira, Beñat, arrebatxo bat izan behar duzu! Hasieran txikia izango da; baina gero oso ongi konponduko zarete, izugarri maitatuko duzu eta asko jolastuko zara harekin, bai?"

Arrebatxoa jaio eta haurrak ikusten duena zera da: denek begiratzen dioten eta ezer



egiten ez duen haur bat. Aita-amei atxikia dago denbora luzean, eta orain mundu guztiak berari kasu gutxiago egiten dio. Gainera, hori gutxi ez eta laguntza behar duenean itxoiteko esaten diote, arrebatxoarekin baitaude. Orain handia dela errepikatzen diote, eta gauzak bere kabuz egiteko agindu!

Nola ez da, bada, Beñat jeloskor sentituko? Eta eskerrak jeloskor sentitzen den; bestela, gurasoek ez liokete batzuetan ia kasurik egingo! Gurasook onartu behar dugu zenbaitetan haur jaioberria dugunean maiz lanak gaintitzen gaituela eta zaharrenari denbora gutxiago eskaintzen diogula, autonomoagoa baita. Normalean, gurasook denbora behar izaten dugu haur jaioberriarekin egoteko, geure babes osoa behar duela sentitzen baitugu. Bi haur ditugu gure gain

eta egokitzeko prozesua behar dugu. Familia egitura aldatu egiten da eta denok (guraso zein haur) egokitu behar dugu egoera berrira.

Ikus dezagun grafikoki egokitzapena eta familia-kideen leku aldaketa:

Haur zaharrena arreta guztia izatetik gurasoen denbora konpartitzera pasatzen da; pen-tsa guraso bakarreko familietan, guraso bakarra konpartitu behar!

Zer hartu behar den kontutan haur jaioberri baten etorreran:

- Haurri naturaltasunez eta dezente lehenago adierazi behar zaio anai, arreba edo ahizpa bat izango duela. Adinaren arabera kontzeptua hobeki ulertzeko ahalmena izango du, baina egoera berriari egokitzeko denbora izatea komeni da. Haurrek komunikazio ez berbala ahozkoa baino hobeki ulertzen dute, eta maiz zenbait mezuak, edo isiltasunak, egoera ez naturala bilakatzen dute, haurra nahastuz.

- Ipuinak oso lagungarriak izaten dira haur jaioberria zer den ulertzeko. Aprobetxa daiteke bera mundura nola etorri zen kontatzeko, edo txikietak argazkiak ikusteko. Izugarri gustuko dute bera nola jaio zen eta txikia zeneko anekdotak kontatzea: maiz negar egiten zuela, kaka nola egiten zuen, behin pixa egun ziola aitonari...

- Haurrak ez du bere anai, arreba edo ahizpa maitatuko berez. Helduok, normalean, desiratzen dugunetik egiten dugu maitasun harremana datorren haurrarenekin. Datorren haurraren zaintzaileak gara, gure ardura eta babesa behar duenez, berez maitatzen dugu kasu gehienetan. Haurraren kasuan, berriz, elkar poliki-poliki ezagutzen dute eta emeki egiten da pertsonatxo berri horrekin harremana. Hori ulertu eta onartu behar dugu helduok, eta harreman hori eraikitzen lagundu: jaioberria besotan ipini eta berarekin zein lasai dagoen esan, behatza eskuetan sartu eta nola harrapatzen dioen azaldu (ez zaitu

utzi nahi!!!!), guraso eta haur jaioberriarekin denok elkarri begira eta jolasten aritu, irribarreak bilatuz...

- Haurraren jelsia sentimendu eta jarrerak onartu eta ulertu. Demagun haur jaioberriari titia eman behar diogula eta gure haurrak ez duela ematea nahi adierazten digula:

“Bai, Beñat, badakit jelsoskor zaudela, bada-
kit beti nirekin egon nahi duzula; baina orain
titia eman behar diot arrebatxori. Badakit ez
dela erraza, baina nik berdin maite zaitut,
izugarri MAITE ZAITUT! Nahi baduzu, elka-
rrekin egongo gara titia ematen diodan bitar-
tean, eta gero zurekin egongo naiz bakar-
bakarrik. Zer egin nahi duzu gero, Maitanek
titia hartu eta lasaitzen denean? Puzzle bat
egingo al dugu?”

- Haurrak jelsia sentimenduak izaten jarraituko du; baina emeki harremana eraikitzen eta beste haur batekin bizitzen ikasiko du, anai, arreba edo ahizpa bat izatearen abantailak bizitzen joango da. Sentimendua onartzen ikasten duen heinean, emozioak ongi kudeatzen ikasiko du, bere jarrera aldatuz.

- Haurrarenekin bakarkako momentuak bilatzea, harreman eksklusiboa edukitzeko momentuak bilatu eta errutinan ezartzea funtsezkoa da. Gurasoen bizimodua abiadura handikoa da eta maiz ez dugu denbora hartzen gure haur zaharrenarekin egoteko. Egunean zehar berarekin bakarrik egoteko tartetxoak programatzea beharrezkoa egiten zaigu: txikia siestan dagoenean berarekin nahi duenera jolastea, eskolara biak bakarrik eta oinez lasai joatea, gauean ipuina bakar-
ka kontatzea eta eguna nola joan zaion gal-
detzea...

Beno, lagunak, haur jaioberriaren jelsia aztertuta, datorren astean haurren arteko jelsiak ikusiko ditugu, bai? Ondo izan!

MAPI URRESTI ORTIZ

Kuttun aholkularitza psikopedagogikoa

kuttun@kuttun.net

Urtats duzu, lagun. Goiz goiza da. Urte zaharreko oroitzapenak eta agiantzak biltzen diren *lapsus* tartea. Urte berrirako nahikariak eta beharrak nahasten dituen hondo gabeko *zulo* unea.

“Handitzen zeranean...”


“Haunditzen zeranean ikusiko duzu isilik egoteak zenbat balio dun”. Haurtzaroa iraganean, artean nerabezaroa erabat gaudituz gabe, gaztaro gordinean bizituz ginen. Euskaraz ulertu ezinik, erdaraz irakurtzen (ge)nizun. Erdaraz irakurrita ere, nik ez nizun ulertzen –ez onartzen, hots– isilik egotearen balioa.

Kaixo, Xabier. Non zaude? Zein larretan? Nekez akordatuko zara nirekin. Izan ere, nik ezin dut hasi eskutitz hau “Adiskide bat zen” titulupean. Behin baino ez genion bostekoa elkarri eman. Eta ia-ia hogeitaz joan dira harrezkero. Gogoan ez dudana, Lapurdiko (Hendaia, Urruñá edo Azkainen izan ote zen nago) eliza bateko sakristian izan zen, kontzertu baten ondoren. Zurekiko nire estimua agertzeraz hurbildu ninduzun.

Lanbideak hurbildu ninduen zuregana orduz gero. Ez ginen, baina, elkartzera behin ere iritsi. Ordainetan, Lourdesen ahotsez ezagutu nuen telefonoz –zu elkarrizketatzeko ene nahiak kitzikatu– eta zure eskutiko hiru gutun labur jasotzen nituen. Hemen ditut gordeak. Gutunak eta oroitzapenak.

Gainontzeko deus gutxi ene aldetik: zutaberen bat. Zure abesti eta poema kantatuen lorratzean ele sotil batzuk eta *Pour sa femme* artikuluxka. *Kilometroak*-en karietara Errenterian emantzen zuten kantaldiaren lorratzean idatzia.

Nire nahia zu solastatzera izan zen. Nahia eta tema. Kazetari adoretzu ausart bipila nintzela agertzeaz gainera, bihoztuna nintzela erakutsi



nahi nizun nonbait. “Xabier Leteren letrek bizitza ulertzeko behar den guztia badaukate, zertarako Xabier Lete elkarrizketatu?” jalgi zitzaidan kolkotik behin baino gehiagotan. Etsiak hartuta nolabait. “Poetak nahi edota behar duena poemetan errana badu, zertarako emanen dit elkarrizketa?” niotson nire buruari. Areago, ni bezalako kazetari txaplasta hamaika atzean izanik.

Ez genuen elkar ezagutu izan. Zu elkarrizketatua ere, oso urrun izango nintzen zu ezagutzeaz. Beraz, ez naiz zurekiko hitz alferretan errendituko. Alabaina, hemen idazten ari dena bi pertsona dituzu, zu inguratzea lortu ez zuen kazetaria eta artean gazte berde heldugabe hura.

Xabier, zutaz oroitzean “Izan zen gizon bat, saiatu zena, baina ez zuena asmatu” delakoa heldu zait gogora. Zomorroa legez gogoratzen zaitut. Horregatik, zeruko larretan hobeto mugitzen zarela pentsu dut. Barkatuko ahal didazu induljentzia hau, zauden goiko larre horietatik. Amaitzeko bi juzku:

1: Barkatu, baina ez dizut barkatzen Jacques Brel-en kantuak zure ahots “kaskarrean” grabatu gabe –argitara eman gabe– partitu izana.

2: Eskerrik asko. Zu (ere) “ezagutu” gabe ez nintzelako naizena –era eta neurri berekoa– izango. Artean, nire bidean segitzen dut, handitzen, osotoro hazi –heldu– gabea banauzu ere.

MIKEL ASURMENDI

“Euskararen erailketa programatua dago, kanpotik bezala barnetik” gaztigatu digu Koldo Izagirrek, gure hizkuntzaren larrialdiatarako gunean mediku mantala jantzita.

Euskararen naufragoak

Behin irakurrita, ezin izan nuen Autopsiarako frogak liburuaren hitz oldeari tokirik eman nire kolkooan: “To, nork esan du euskarak historia ez duenik?”. “Nork esan dezake euskarak espresatzeko balio ez duenik?”. “Halako altxorrik euskaraz baino ezin da bildu poltsiko batean” pentsatu nuen –liburuaren edizioa poltsikokoa izaki–.

Autopsiarako frogak hain erreala iruditu zitzaidan, ezen eta asmatutako bakarra –fikzio bakarra– azaleko irudia zela pentsatu bainuen. Kepa Gonzalez (*) ez dela existitzen pentsatzera iritsi nintzen. Azaleko argazkiaren egi-
lea, alegia.

Egizu kontu: liburua ohean irakurri nuen lehen aldikoz. Eguneko nekearen gainean nekez irakurri ere. Gauak iragan ziren. Herioak gorputza nola, hala barnebildu ninduen loak, firurikan.

Gorpuaren egoera kirofanoan ikusteak gogor kolpatu ninduen. Medikuak mantal zuriaz ziharduen, artseniko aztarnak zehatz-mehatz seinatlatzen zizkien ingurukoei, baina hauek, erizainek eta laguntzaileek, gutiz gehienek elebitasun ofizialaren tresnak zerabiltzaten. Berbarako, “gaza” zioen medikuak eta “gasa” ipintzen zioten sail ofizialekoek.

Ahuldade uneak bizi izan nituen. Hozkirria nabaritu nuen bizkarrezurrean. Herioa sumatu



Liburua: *Autopsiarako frogak*
Egilea: Koldo Izagirre
Argitaletxea: Susa

nuen ingurumarian. Une batez, ahalmenik gabe, heriotza modu naturala izatearen aurka esnatu nintzen, ernaldiotan, medikuarekin bat egin nahian, ezinean jardun nuen, baina. Batzuetan, gainera, nire buruari egotzi nion gorpuaren errua.

Gainerakoan... Gainerakoan, bigarren ezin nion/diot liburuari. Hainbat ohar/zauri eta hamai-ka hari apartatu nituen/ditut. Hemen ari naiz, ezin zauri guztien harian gorputza harilkatu. Harildu ditzadan bederen horietako batzuk, gorpu ez dadin bilaka, bizirik iraun dezan:

– Euskaldunok inozoak gara. Inozoak garenez jabetzeko, eus-

karaz bizi behar baita.

– Euskaldunok edukiz kaikuak, edukion-tziak, gara, ez geurezko nortasun eduki-dunak.

– Euskaldunoi –aurrekoaren ondorioz– ez dagokigu identitate unibertuala.

– Euskaldunok emandako hitza sakratua izan zen, euskaldun fededun izatera determinatu gintuzten bitartean.

– Euskaldunok euskararen alde (auto)determinatzen ez garen bitartean, hizkuntzaren intergrista –“talibanak”– izatera kondenatuak gara.

– Ez da fikzioa, euskaldunok euskararen naufragoak gara.

(*) Vigoko baforea arribadan. Ondarroa, 2002.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Urtarrilak 23



- Amaian, 20:00etan, Do Chapito taldeak William Shakespeareren *La Tempestad* obra komikoa antzeztuko du.

Urtarrilak 25- Otsailak 6

- Euskadiko Kutxan, Nagore Arrastuaren margolanen erakusketa.

Urtarrilak 27



- Amaia KZn, 19:30ean, Zure Abenturaren Bila programaren barruan, *Flysch* euskal kostaldeko arrokei buruzko ikus-entzunezkoa proiektatuko dute, jatorrizko bertsoan eta gaztela-

niazko azpituluekin. Hasier Hilariok eta Alberto J. Gorritibereak aurkeztuta.

Urtarrilak 28



- Amaia KZn, 20:00etan, Cinema Paradiso zine klubak Philippe Claudel-en *Hace mucho tiempo que te quiero* (2008) filma proiektatuko du. Juliette (Kristin Scott Thomas) kartzelan egon zen denboraldian, ahizpak uko egin zion senidea berarengana hurbiltzeari eta tenore gogor hartan laguntzeari. Orain aske dago eta ahizpak, gizarte zerbitzuek hala eskatuta, etxean hartuko du.

Urtarrilaren 23ra arte

- Euskadiko Kutxan ADOS taldearen zeramika-lanen erakusketa.

Urtarrilak 30

Benito Lertxundi Irunen



- Noiz: **Urtarrilak 22.**
- Non: **Amaia KZn.**
- Ordua: **20:00.**

Benito Lertxundik *Itsas ulu zoliak* bere azken diskoaren aurkezpena egingo du.

Orietarra euskal kantagintzaren aintzaindari nagusietako bat da.

- Amaia KZn, 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren emanaldia.

Urtarrilak 30

- Santiago-Bide Lagunen Txingudiko Elkarteak txangoa antolatu du. Hernani-Tolosa etapa. 17 km gutxi gora behera. Topalekua: Hernaniko tren geltokian 7:50ean.

Liburutegiko jarduerak

- HAURRENTZAKO IPUINAK.

Urtarrilaren 19an euskaraz eta 26an gaztelaniaz. Ordua: 17:30.

- HELDUENTZAKO IPUINAK.

Urtarrilaren 27an, 17:30ean, gaztelaniaz.

- Carlos de

Agustinen MINTEGIA. Urtarrilak 20. Gaia: Leer aldizkariaren edukien azterketa.

Urtarrilak 27. Gaia: Egileak, liburuak, abenturak. Kurt Wolff. Ordua: 17:00.

- POESIA TALDEA, Jesus Rodriguezen eskutik.

Urtarrilak 31, 17:30ean. Gaia: Szyborska.

- IRAKURKETA KLUBA, Mertxe Trancheren eskutik. Urtarrilak 25, 19:00etan. Gaia: *Ancho mar de los Sargazos*. Jean Rhys.

- LIBURU FORUMA. Urtarrilak 17, 19:00etan. Zuzendaria: Mertxe Tranche. Gaia: *Tierras desacostumbradas*. Jhumpa Lahiri.

- IDAZKUNTZA TAILERRA. Maite Gonzalez Esnalek zuzendua. Urtarrilak 17, 19:30ean. Abezearen hastapenak.



Human BODIES erakusketa Ficoban



Non: Ficoban

Noiz: Urtarrilaren 21etik apirilaren 25era.

Human BODIES...The Exhibition giza-gorputzaren inguruko erakusketa ospetsua ikusgai izango da lehenbizikoz Gipuzkoan. Erakusketa giza-gorputza ezagutzeko bidaia ikusgarria da. Hartara, 10 gorputz osorik eta 100 organo inguru ekarri dira, guztiak ere errealak, plastinazio deituriko teknikaz tratatuak.

Antzerkia euskaraz

Urtarrilaren 29an, Amaia KZn, 17:00etan, familia-antzerkia. Teatro Paraisok *Txirulari Magikoa* ikuskizuna eskainiko du.

Mutur aurrean harrapatutako oro irensten duten saguz beteta dago Hamelin. Hiritarrek ez dakite zer egin, egoera jasangaitza baita.



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- IRUNGO INAUTERIETAKO KARTE-LA aukeratzeko lehiaketa. Sariak: Lehenengoa, 600 eurokoa, eta bigarrena, 200ekoa. Epea: Urtarrilak 28.

- BETA EDIZIOEK KONTAKIZUN Laburren Saria antolatuta dute. Epea: Otsailak 28.

- IRUNGO ERREPUBLIKARREN Elkarreak Gazteentzako Literatur Lehiaketa Errepublikarra antolatuta du. Epea: Martxoak 14.

Bekak



- DANTZA HIRIAN MUGAZ gaindiko Jaialdiak *Aterpean 2011* izeneko programa abiarazi du. Eskaintza: Laguntza ekonomikoa, sortzeko espazioa eta Baiona-Donostia eurohirian irailean burutuko den

Jaialdian lanak aurkezteko aukera. Eskaearak aurkezteko epea: Urtarrilak 30. www.dantzahirian.com

- ARGO BEKAK. Antolatzailea: Hezkuntza Ministerioa. Betebeharrak: Estatuko edozein unibertsitatetan, publikoa nahiz pribatua izan, titulatu izana. Edukia: Europar enpresetan prestakuntza egonaldiak. Epea: 2012ko martxoaren 30.

- ERRESUMA BATUAN eta Irlandan lan-praktika bekek. Antolatzailea: Caja Madrid. Betebeharrak: Lanbide Heziketako ikasle eta tituludunak. Edukia: 7 asteko praktikaldia. Epea: Urtarrilak 24.

- VULCANUS PROGRAMA JAPONIAN. Programa hau

harpidetza



IRUNGO ERREPUBLIKARREN
TEL 843 506 444
843 506 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska lezaiguzu, eta astero bidaliko dizugu informazioa sare etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZIENAK
HEKIDENA
P.K. BERRIA
POSTA ELEKTRONIKOA

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pídennoslo y te enviaremos información personal a tu casa o correo electrónico.

Europar Batasuneko zientzia edota ingenieritzako karreraren bateko hirugarren ikasturteko ikasleei zuzendua da. Edukia: Japoniera ikasteko lau hilabeteko ikastaro bat eta hango enpresa batean 8 hilabetetako praktikaldia. Epea: Urtarrilak 20.



- **PRAKTIKAK NAZIO BATUEN** Erakundearen, Europar Batzordearen New Yorken daukan egoitzan.

Lana



- **IRAKASLE-TALDEKO KIDE** izateko 2011ko oposizio deialdia. Guztira 1.515 lanpostu eskainiko dira, Maisu-Maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura. Epea: urtarrilaren 11tik 31ra .

- **NATIONAL GEOGRAPHIC-EK** bidaia-monitoreak behar ditu. Baldintzak (besteak beste): Unibertsitateko ikasketak izatea eta dagokion herrialdeko hizkuntza menperatzea, eta bertan ikasten/bizitzen/bidaian denbora pasa izana. Epea: Aukeraketa 2011ko urtarriletik martxora bitartean AEBn egingo da.

Gazteentzako aretoa



Illunbeko zezen plazako Akua jai aretoan, 14tik 18ra urte bitarteko gazteentzako saio bereziak, alkoholik gabe. Larunbatero 17:00etatik. Jai tematikoak, jokoak, lehiaketak, zozketak... Sarrera + alkoholik gabeko edaria: 5 euro.

HIESa prebenitzeko kanpaina

HIESa prebenitzeko xedez *Babestuago atseginago* goiburuko kanpaina abiarazi du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Irungo Gazte Informazio Bulegoan informazio materiala nahiz preserbatibokak (mutilentzat zein nesKentzat) eskura ditzakezu.





Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Denda:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.